

Más de 50 organizaciones se movilizan contra la OTAN, la UE y el Imperialismo

ECUADOR ETXEA :: 11/03/2023

Más de 2000 personas se han manifestado en Bilbao reivindicando una Euskal Herria antiimperialista.

Urgentziak markatzen hasi genuen manifestua. Presazkoa zela Euskal Herri antiinperialista eta internazionalista baten aldarria esan genuen. Eta presa horrek bildu gaitu Euskal Herriko txoko guztietako kideak.

Kapitalismoa krisi sistemiko betean dago. “Aparteko aldi” batez hitz egiten digute, baina etengabeko krisietan murgilduta gaude, batetik atera orduko bestean sartzen gara. 2020tik aurrera, gainera, salbuespenezko fase batean sartu gara: Estatuak aprobatzen ari dira politika ekonomikoak, sozialak eta diziplinatzaileak zorrozteko. Gerra agertoki batera garamatzate. Eta, neurri berean ari dira zorrozten, nola ez, errepresioa eta zentsura. Europan faxismoa areagotzen ari da, eta ez dugu zalantzarik burgesia beldurtuta dagoelako dela. Beldurtuta, gero eta esplotatuago eta haserreago gauden langileon gaineko kontrola galtzearen aurrean.

Nazioarteko harremanei dagokienez, inperioa hegemonia galtzen ari da. Azken 30 urteotan, ia inolako oposiziorik gabe kontrolatu du mundua; baina piezak mugitzen ari dira. Estatu Batuak eta NATO buru dituen blokea ez dago prest bere ziklo historikoaren amaiera onartzeko; badirudi erabakia duela gerrak areagotzea, Txinaren eta Errusiaren hazkundera geldiarazi nahian. Eta, asmo horretan, industria armamentistari sekulako bultzada eman zaio. Konfrontazio fase honetarako, azkenean lortu dute Ursula Von Der Layenek, Borrell lorazainak eta halakoek zuzendutako lobbyaren atxikimendua. NATO eta EB historiako garai beltz honen zutabe nagusiak dira. Eta ez dezagun ahaztu herri palestinarrarekiko erasoak areagotzen ari den entitate sionista.

Dena den, argi izan behar dugu NATOren rola erakunde militarra izateaz haragokoa dela. Egia da, bai, burgesiaren armada dela nagusiki; hala ari da erakusten Donbassen, eta hala erakutsi zuen bere garaian Jugoslavian, Libian eta Sirian. Horrez gain, ordea, badu beste funtzio bat: kapitalaren politikei aurre egiten dien edozeinen aurka egiteko adar militarra izatea. Gaur egun, askotarikoak dira berekin dakartzan emaitzak: langile klasearen gainesplotazioa eta prekarizazioa, bereziki emakumeena eta arrazializatuena; lan eskubideetan aldaketak, klase borrokaren bitartez irabazitako kontzesio materialak kentzeko; lege aldaketak, borroka horien aurreko errepresioa areagotzeko...

Zentzu horretan, adibide argia dira Estatu espainoleko azken aurrekontu orokorrak; eta ez dadila disimuluan pasa alderdi sozialdemokrata guztiek onartu izana. Herri langileen baldintza materialak okertzea babestu dute, NATOren mesedetara; izan ere, gaitasun gehiago eman zaizkio, eta burgesiaren interesak defendatzeko azpiegitura zibilak eskuratzeko eskubidea aitortu zaio. Onartezina da politika militaristei babesa ematea, mundu gerra baten inguruetan, eta munduko herri langileon etorkizunarekiko konpromiso

falta ikaragarria erakusten dute.

Euskal Herrian gertutik ezagutzen dugu zer irudikatzen duen NATOk: Bardeako poligono militarraz eta Gasteizko Arakako basean egindako ariketa militarrez gain, Gasteizko Gobernua SENER eta SAPA gerra-industriak babesten ari da. Eta nola ahaztu NATOk bere garaian emandako babesak Estatu espainiarrari eta frantsesari, Gladio sarearen bitartez, Euskal Herriaren askapen borrokaren kontrako errepresio legal eta ilegalean.

Honi guztiari ezinbestean gehitu behar zaizkio Bruselak ezarritako salbuespenezko neurri ekonomiko eta sozialak: pentsio pribatuen funtsak, erretiro adinaren igoera, osasungintza publikoaren desagitea... Gero eta argiago dago, ez herri gisa, ez klase gisa, ez dugula etorkizunik NATO eta EBren barruan. Beharrezkoa da burgesiaren dominazio tresnak suntsitzea, baita Estatu espainiarra eta frantsesa ere, askatasunean oinarritutako etorkizun bat nahi badugu behintzat.

Ez dira garai onak, ez. Egoera gero eta konplexuagoa da; gordinagoa. Horregatik, heda dezagun borroka antiinperialista Euskal Herriko herri eta auzo guztietara. Duela 36 urte ezezkoa eman genion NATOri, eta gaur, ez dugu hori berrestea bakarrik nahi, areago, ofentsiba inperialistari aurre egin eta dei egin nahi dugu EHn indarrak batzera NATOren eta EBren aurka, eta, ezinbestean, munduko gainerako herri langileekin eta nazio zapalduekin. Jarrai dezagun borrokan, jarrai dezagun antolatzen. Presazkoa da, eta ez dugu denborarik galtzeko.

Empezábamos el anterior manifiesto hablando de urgencias. Decíamos que era primordial reivindicar una Euskal Herria antiimperialista e internacionalista. Y esa urgencia, esa necesidad, es la que ha reunido hoy aquí a compañeros y a compañeras de todos los rincones de Euskal Herria. Gora gu ta gutarrak!

El capitalismo atraviesa por una crisis sistémica. Nos hablan de un “período especial”, pero lo cierto es que nos encontramos más bien en una crisis permanente. Cuando supuestamente hemos salido de una, ya nos han metido en otra. A partir de 2020, además, hemos entrado en una fase de excepcionalidad en la que los Estados aprovechan para imponer políticas económicas, sociales y disciplinarias que apuntan hacia un escenario de guerra. No podemos separar por tanto la descomposición capitalista del aumento de la represión y la censura. El auge del fascismo que se está produciendo en toda Europa es consecuencia directa del miedo de la burguesía a perder el control que ejerce sobre una población cada vez más explotada y enfadada.

En el ámbito de las relaciones internacionales, asistimos también a la progresiva pérdida de hegemonía del Imperio que ha controlado el mundo prácticamente sin oposición durante los últimos 30 años. El bloque liderado por Estados Unidos y la OTAN, lejos de asumir el fin de su ciclo histórico, parece decidido a incrementar los conflictos bélicos. Además de darle un impulso a la industria armamentística, pretenden así dificultar el crecimiento de potencias emergentes como China o Rusia. Para esta fase de confrontación, han logrado finalmente la adhesión del lobby capitaneado por Ursula Von der Layen, el “jardinero” Borrell y compañía. La OTAN y la UE, junto con la entidad sionista que redobla sus ataques al pueblo palestino, son hoy los principales puntales de este periodo negro de la Historia.

En lo que respecta a la OTAN, tenemos que entender que su papel va más allá de ser una mera organización militar. Aunque es verdad que es principalmente el ejército de la burguesía (y así lo está demostrando en el Donbass, como lo demostró también en Yugoslavia, Libia o Siria), tiene la función superior de ser el brazo militar contra cualquiera que se oponga a las políticas del capital. Hoy en día estas se traducen en la sobre-explotación y precarización de la clase trabajadora (especialmente de las mujeres y las personas racializadas), cambios en los derechos laborales para privarnos de las concesiones materiales arrancadas mediante la lucha de clases, cambio de leyes para aumentar la represión ante esas luchas, etc.

Un claro ejemplo de esto son los últimos Presupuestos Generales del Estado español, apoyados por todos los partidos socialdemócratas, y que amparan el deterioro de las condiciones materiales de los pueblos trabajadores para beneficiar a la OTAN, dándole más capacidad de control y reconociéndoles el derecho de apropiarse de infraestructuras civiles para defender los intereses de la burguesía. El apoyo a estas políticas militaristas, en los albores de una guerra mundial, es una auténtica vergüenza y demuestra la total falta de compromiso de la dirigencia de estos partidos con el futuro de los Pueblos Trabajadores del mundo.

En Euskal Herria conocemos bien lo que representa la OTAN: además del polígono de entrenamiento militar en las Bardenas o los ejercicios militares que realizan en la base de Araka (Gasteiz), asistimos últimamente a un apoyo descarado del Gobierno de Gasteiz a industrias de la guerra como SENER o SAPA. Tampoco podemos olvidar el apoyo histórico de la OTAN, a través de la red Gladio, a los Estados español y francés en su represión legal e ilegal contra la lucha de Euskal Herria.

Si a esto le añadimos las medidas de excepción económica y social que nos imponen desde Bruselas (fondos de pensiones privados, aumento de la edad de jubilación, desmantelamiento de la sanidad pública...), cada vez nos queda más claro que ni como Pueblo ni como clase trabajadora tenemos futuro dentro de la OTAN ni de la UE. La necesidad de destruir estos instrumentos de dominación de la burguesía, así como los Estados español y francés, resultan más que evidentes si aspiramos a construir un futuro en libertad.

No corren buenos tiempos, desde luego que no. La situación se está complicando cada vez más a lo largo y ancho del mundo. Y es por eso que reivindicamos hoy aquí la activación en cada pueblo y cada barrio de la Euskal Herria antiimperialista. Hace 37 años dijimos NO a la OTAN y hoy, no solo nos reafirmamos en este rechazo, sino que volvemos a hacer un llamamiento urgente a unir fuerzas con el resto de pueblos trabajadores y naciones oprimidas del mundo para detener la ofensiva imperialista impulsada por esta organización criminal junto a sus aliados de la Unión Europea.

Desde Chile hasta Donbass, pasando por Laos, Mali o Vietnam...

GORA HERRI LANGILEEN BORROKA!

GORA EUSKAL HERRIA ANTIINPERIALISTA!

[twitter:twitturl:https://twitter.com/EcuadorEtxea/status/1634602563893960704?ref_src=twsrc%5Etfw%7Ctwcamp%5Etweetembed%7Ctwterm%5E1634602563893960704%7Ctwgr%5E0a9620f441b6d1643671ef9f62e61a46b7b98521%7Ctwcon%5Es1_&ref_url=https%3A%2F%2Fwww.ecuadoretxea.org%2Fmas-de-50-organizaciones-se-movilizan-contr-la-otan-la-ue-y-el-imperialismo%2F]

<https://www.ecuadoretxea.org/mas-de-50-organizaciones-se-movilizan-contr-la-otan-la-ue-y-el-imperialismo/>

<https://eh.lahaine.org/mas-de-50-organizaciones-se>